

LOROEN KOLOREAK

Orain dela urte asko, Kanariar Uharteetan loroa izeneko animalia batzuk bizi ziren, baina ez zituzten kolore asko, beltzak eta itsusiak ziren.

Egun batean, loro txiki bat bera eta bere familiarrak oso itsusiak zirela konturatu zen, eta norbaiti zer egin ahal zuen galdetzea bururatu zitzaion, eta pentstzen hasi zen. Ordu erdi bat pasatu eta gero, azti batengana joatea bururatu zitzaion; esan eta egin, baina jauregira ailegatu zenean, jauregia itxita zegoen eta aztia ez zegoen, oso triste etxera bueltatu zen, han familiari zer egin galdetu zion eta aukera bakarra itxarotea zela esan zioten.



Astebete pasatu zen, berriz jauregira bueltatzea bururatu zitzaion, eta berriz jauregira joan zen. Alegatu zenean, aztiari ea zer egin ahal zuen galdetu zion. Ondoren, aztiak bere bola magikoa hartu zuen eta lehoiarengana joateko esan zion; lehoiak, erregea zenez, legeak azalduko zizkion, eta lehoiak, legeak esan eta gero, bueltatzeko agindu zion, eta loroak horrela egin zuen. Aztiak, legeak irakurri eta honela esan zion: - *Hemendik ortzadarrera joatea ez dagoenez debekatuta, hori egingo duzu, eta ortzadarra zeharkatzen duzunean nahi dituzun koloreak hartuko dituzue eta askoz politagoak izango zarete.*

-Euria egin zuen egun batean, eta eguzkia ere atera zenean, ortzadarra ere atera zen, eta loro guztiek ortzadarra zeharkatu zuten. Horregatik esaten da loroek oso politak direla. Horrelaxe lortu zituzten loroek koloreak.

AMAIERA